

HERENTZIA GENETIKOAREN EREDUA

X-ri lotutako errezesiboa

Gene mutatua X kromosoman aurkitzen da. Gizonek bakarrik dute gaixotasuna. Emakumeak eramaileak izan ohi dira, baina, aurreko kasuan bezala, bi gurasoek mutazio bera badute, eragindakoak izan daitezke. Ez da harrizkoa emakume eramaile batzuek gaixotasunaren zeinuren bat izatea begi batean edo bietan, asimetrikoki. Nahiz eta zeinu horiek oftalmologoak (begietako gaixotasunetan aditua den medikua, “okulista” ere esaten zaiona) hauteman ditzakeen, ez da ohikoa emakumearen ikusmena nabarmen aldatuko duten sintomak agertzea. Emakume eramaile batek kaltetutako semeak izan ditzake. Seme bakoitzak % 50eko probabilitatea izango du eritasunak jota egoteko. Alabak eramaileak izan daitezke. Alaba bakoitzak % 50eko probabilitatea du. Erasandako gizonezko batek ez du erasandako semerik, baina bere alaba guztiak eramaileak izango dira.

